



# IbonRG

## Hil zara

Nerbioi ibaiaren ezker aldean sortua, duela jada bi hamarkada hasi zen IbonRG (Sestao, 1978) Bizkaiko eszena independente eta esperimentalean parte hartzen, bai kontzertuak antolatzen (Kafea eta Galletak egitasmoan), bai beste musikarien lanak ekoizten eta moldatzen (Mursego, Manett, Xabier Montoia eta abar), baita -bereziki- musikari gisa, hainbat proiektutan; Eten taldearekin argitaratu dituen lau diskoekin edota ahotsezko inprobisazioa eta elektronika uztartzen dituen Gargara bikotearen lanekin, IbonRG-k erabateko pieza bilduma osatuz joan da, exekuzio gordin eta mehatxugarrikoa, eta mezu sendokoa. Orain, bakarkako lehenengo lana osatzen duten abesti hauek gehitu dizkio bere kantutegiari.

Denbora luzez, doinu hauen zirriborroak umotzen ari zirela, Koldo Izagirreraren Baldintza Subjektiboak izeneko olerkiaren berrirakurketak bat egin zuen goiz askotan Ibonek esnatzean zerabilen melodia batekin. Bere hitzetan *-kanta guztiak sortuak dira a cappella emateko, baina halako batean, pianora eseri nintzen melodia bat fintzeko, eta tresnak zirriborroetako batzuk zipriztindu zituen (...)*.

Lan bikoitza da Hil zara. Lehenengo alean a cappella emandako zortzi kanta daude eta bigarrenean piano eta ahotsez emandako beste zortzi. Lau leku hautatu ziren 'Hil zara I' grabatzeko (eremitorio bat, leize bat eta bi bunker), eta Ibonen ahots biluziak durundi egiten du leku horietako ertz, erliebe eta hormetan. 'Hil zara II', aldiz, Eibarko musika-eskolan grabatu zen, piano bakar batean eta mikrofonoak grabaketa osoan kokapen berberean zeudela.

Lan honetako bi abestik izen berbera daramate, 'Hil zara'; eta biek ala biek izena ematen diote disko osoari. Lehenengoak ematen dio hasiera lehenengo biniloari, eta bigarrenak ixten du bigarrena. Bi kantuon artean, Ibonek, hitz ezin zorrotzagoen jabe, eta subjektibismoari lekua eginez, letra-bilduma gotorra, solemnea eta, batez ere, zirraragarria aletuz doa. Dimentsio sinboliko horretan, denbora arrazionalizatzen duen gezurra estalgabetu nahi duen kanta bailitzan, kantaria neurritzat darabilgun kalkulua deszifratzeko lanetan aritzen da. Hitzak apuntatu egiten du, seinalatu egiten du eta guk naturan igar dezakegu memoriaren isla, desitxuratua, gure aurrean.

*Zaborrean aztarrika/ erantzuna usnatu ahal da/ Alorra goldatu ahala/ Egurasten dira erroak (...)*. Dudaren domina.

Gozatu.

### Hil zara I

- 01 . Hil zara I
- 02 . Gandutu da
- 03 . Indar amini bat
- 04 . Estura
- 05 . Eremiten zortziko hautsia
- 06 . Erreka gazia
- 07 . Behinola
- 08 . Gogoaren durunda

### Hil zara II

- 01 . Duintasunaren zama
- 02 . Zure elea
- 03 . Egunean
- 04 . Baldintza subjektiboak
- 05 . Aizun, toles
- 06 . Dudaren domina
- 07 . Ito errota
- 08 . Hil zara II

### Ibon RG, ahotsa eta pianoa

'Hil zara I' Txesus Garaterekin grabatu zen Manzanedo Araneko eremitorio batean, Errenteriako Aitzpitarte IV leizean eta Getxo eta Galdakaoko bunker banatan. 'Hil zara II' Txesus Garate eta Ibon Aguirrerekin grabatu zen Eibarko Musika Eskolan. Lan osoa Txesus Garatek nahastu eta ekoitzi du Errenterian, eta Estanis Elorzak masterizatua Donostiako Doctor Master estudioan

Margolana eta diseinu grafikoa, Jon Martinek egin du

Euskarria: 10"-ko binilo bikoitza eta digital  
Argitaratze-data: 2019ko urtarrilaren 25ean  
Erref: R75.

Promo: sofia@repetidordisc.com  
cc: laura@repetidordisc.com

## Hil Zara I

Esan hil egin zaren  
Esan ateri ote den  
non ehortzi duzun giltza  
Non etzan zaren

Ez nau iluntzen zure itzalak  
Ez histen dirdirak  
Ez nau hozten zure ufadak  
Ez epeltzen hatsak  
Niretzat zendu zara  
Deus ez zara

Ez nau samurtzen zure loak  
Ez gortzen auhenak  
Ez nau higuintzen zure hatsak  
Ez gozotzen keak  
Beherantz lurrundu zara  
Hautsa zara

## Gandutu da

Busti da leihoa gandutu da egia  
Hautsi da beroa ase da izua

Erdia idor dago  
Erdirik ez da aukeran  
Irri erdia jo duzu  
Imintzio erdia

Hustu da bidea galdu da zidorra  
Hoztu da kalea mututu da airea

Zutara ohitu zara  
Zugandik ez da zirkinik  
Zure inguruko soak  
So atzengabeak

## Indar amiñi bat

Indar amiñi bat bilduko bagenu  
zola azpiko itzala laztantzeko  
ez ginateke salduko hain errez

Indar amiñi bat bilduko bagenu  
gure esku maiztuak usaintzeko  
ez ginateke ahaztuko hain errez  
belauniko erauzitako loreez

Indar amiñi bat bilduko bagenu  
gure sega kamutsa zorrozteko  
ez ginateke galduko hain errez

Indar amiñi bat bilduko bagenu  
gaueko ahaireak dantzatzeko  
ez ginateke bustiko hain errez  
putzuetako zipriztin zilarrez

## Estura

Estua arnasa  
Estuagoa argia  
Are estuagoa loa  
eta gureen murmurioa

Estua atea  
Estuagoa hegia  
Are estuagoak hortzak  
eta gureen heriotzak

Estua ukabila  
Estuagoak zioak  
Are estuagoa ahotsa  
eta gureen harrabotsa

## Eremiten zortziko hautsia

### Erreka Gazia

Hasperen boladak, kateak zabuka,  
urkabeen sigi saga, mutu kaiok  
Estatxa urratuak, eztarri erlatsak,  
kakoak dilin dalan  
Euritan dirdira kristalean pausatu  
Euritan dirdira hauspoetan  
Erreka gazi bat isuri da ditxora  
Erreka gazia maldan behera

Oihartzun herrena  
Ostadar gardena  
Erreka beltzean ta mingotsean islatuak

### Behinola

Lurra hezea gazia zen  
Hitza luxua pisua zen  
Giltza ernea beroa zen  
Hotsa doilorra merkea zen  
Zaina ustela laburra zen  
Jana urria harria zen  
Mina arrotza bizia zen

### Gogoaren durunda

Gogoaren durunda apaltzen saiatu arren,  
ozen dirau

Bihurguneko etxola zuriak keinu egin dizu  
Haran gorriko astigar mardulak dira hanpatu  
Baratzondoko bareen lorratza duzu usaindu  
Gau hotzetako hontzaren dardarak zaitu izutu  
Zorroztarriei darien soinua abestu duzu

### Duintasunaren zama

Lanpasa azpian dela zure duintasun apurra  
ez da berez ostendu hara baizik ta zuk bultzatua  
baizik ta zuk bultzatua

Ai, duintasunaren zama  
hautsak hartua den duintasunaren zama  
duintasunaren zama, asaldatzen zaituena

Ezin erosi apirilik  
Ezin lapurtu honrarik  
Ezin errua inarrosi  
Ezin argitu ilunantzik

### Zure elea

Zure elea aditzeko  
Ahoratu kexak  
Listuztatu leloak  
Murtxikatu aditzak

Zure elea aditzeko  
Xehatu oharrak  
Tragatu arrengurak  
Liseritu irainak

Zure elea aditzeko  
Hesteratu laidokak  
Urdaileratu izenak  
Uzkiratu agurrak

### Egunean

Bide ibiliak  
Ate higatuak  
Hondar zaharrik  
Hots buxatuak  
Txorrota agorrik  
Sasitza idorrik  
Egarri ernaiak  
Burdin hezurrik

Hautsi da iragana  
eguneratu dira ametsak,  
hariak, ezetzak  
eten dira gomutak

Galdu da oroimena  
berritu dira herrimena,  
ahotsak, euria  
eraitsi dira denak

Entzule isilak  
Hezi herdoila  
Belar harroa  
Leiho gardena  
Gose etsia

Mugarri latzak  
Diosal hutsak  
Horma gardenak  
Malda bustia  
Bazter histuak  
Atsedean hotza  
Hegi maiztuak

### Baldintza subjektiboak

Itsas handiak ahoa zabal  
portutik urrun irtenda  
mundu berririk ez dago eta  
loturik hobe omen da  
halere bihotz duenak badu  
barkua non bete berba

Arruta sarri huts egin ohi dut  
oker zuzenduta lema  
ahula baita bizi-faroa  
argitzen duen linterna  
halere garaiz ikasi nuen  
barkua non bete berba

Orratza galduta nork dezake  
portu onean azerta  
laguna uste nuenak maiz du  
nire kontra jo alerta  
halere beti aurkitu ohi dut  
barkua non bete berba

Munduko zazpi putzu gaziak  
ez dira inoiz ur bera  
gu garamatzen ontziak orain  
gorria dakar ubera  
halere jator eskaintzen dizut  
nik barkua bete berba

Hautsiko zaigu erdiko masta  
urratuko zaigu bela  
beldurrak digu bilakatuko  
ahoa hitzen logela  
halere ez dut galtzen utziko  
nik barkua bete berba

Itsas hondotik datorren baga  
harkaitzak lezake ema  
inoiz isilduko ez nautenik  
ez dezaket zinez berma  
halere beti ekarriko dut  
nik barkua bete berba

© Koldo Izagirre

### Aizun, toles

Bular epelez hontzak ager  
mozorro xumeko lainezez  
aizun, bare, otzan, toles

Urkiak heldutasun hotsez  
uneak zurbiltzen zimurtzen

Aizun, bare, otzan toles

Elurak itzalari itzurtzen  
jabeen argia urdintzen  
Aizun, bare, otzan toles

Malda etsien lepo zeken  
izter zango nekeen habe

Aizun, bare, otzan toles

### Dudaren domina

Galderak kimatu ahala  
ugerra ageri da bertan

Jantzi dudaren domina  
Erantziz dudaren mina  
Oratuz ahantzia dudan grina  
Ez dut ahalegin arina

Zaborrean aztarrika  
erantzuna usnatu ahal da

Alorra goldatu ahala  
Egurasten dira erroak

### Ito da errota

Errota, errota, errota ito da

Behinola izandako dorre, ipoztua egun  
Zirkinik ere ez hegalek, alerik ez eho  
eho ez eho ez

Errota, errota, errota ito da  
Haizeorratza gurutze, errutuz bere porrota  
putz eginda putz, pott eginda pott

Errota, errota, errota ito da  
Izotzezko goruak agor, erruletak finko  
Goroldioak ditu hartu, astun, ahitu, alfer, berun

### Hil zara II

Ehun zizare elikatuko dira zure azalez

Zimurtu zaizu arima Zikindu zaizu loa  
Zimeldu zaizu herra  
Zuzendu zaizu irria

Izen bat besterik ez zara  
simaurrea besterik ez zara  
lantu bat besterik ez zara  
lizuna besterik ez zara  
iltze bat besterik ez zara  
orbela besterik ez zara  
labar bat besterik ez zara  
zirdin bat besterik ez zara  
fartsa bat besterik ez zara  
orratz bat besterik ez zara  
belo bat besterik ez zara  
osin bat besterik ez zara  
lanbroa besterik ez zara  
trazu bat besterik ez zara  
lupetza besterik ez zara  
akats bat besterik ez zara  
izotza besterik ez zara  
koska bat besterik ez zara  
Zurtoin bat besterik ez zara  
kantu hau besterik ez zara

Ahazten ari da apaltzen ari da galtzen zinena,  
tai gabe